



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko maiatzaren 10a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 10-23/PES-00001. Galdera, Pilar Irigoien Sodenako zuzendari-kudeatzaile kargutik kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 10-23/PES-00002. Galdera, NBEak erosteko 2020ko maiatzean sinatutako lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren sinatzaileen artean galera ekonomikoak banatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 10-23/PES-00004. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzeko Udalez Gaindiko Proiektu Sektorialeko eremu osagarrietan jarduketak egin ahal izateko eginkizun tekniko, ekonomiko eta administratiboei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 10-23/PES-00005. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioaren artean funts europarren kontura proiektuak gauzatzeko sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren jarraipen-batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 10-23/PES-00006. Galdera, helmuga-dezilaren arabera, dezil bakoitzean jasotako mugikortasunaren deskonposizioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 10-23/PES-00007. Galdera, iristeke dauden REACT funtsak Nafarroara iristeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 10-23/PES-00008. Galdera, zainketen aldeko Foru Itunean ezarritako ekintzak gauzatzeko toki-entitateendako finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 10-23/PES-00009. Galdera, zainketen aldeko Foru Ituna gauzatzeko kronogramari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 10-23/PES-00010. Galdera, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, lurzoru urbanizaezinean artegi bat legezatzeko Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 10-23/PES-00011. Galdera, Kattalingune zerbitzuak LGTBI+ pertsonen emandako arretaren inguruko datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

- 10-23/PES-00012. Galdera, Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresak haren publizitate-liburuxketan Caparrosoko abeltegitzarrari aipamena egiteko “BIO” hitza erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 10-23/PES-00013. Galdera, Remontivaleko ikasgela alternatiboak 21 urte arteko ikasleetara hedatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 10-23/PES-00014. Galdera, Errenta Bermatuaren prestazioa jasotzeko eskubidearen kontrolari eta jarraipenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 10-23/PES-00015. Galdera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei dagokienez, Nafarroari esleitutako funtsetatik itzuli beharko direnen zenbatekoaren estimazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 10-23/PES-00016. Galdera, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarterako proiektuaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 10-23/PES-00017. Galdera, Nafarroan egiaztatutako familia gurasobakarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 10-23/PES-00018. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailatza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa antolatzeke Mondragon Unibertsitatea hautatu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 10-23/PES-00019. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailatza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren antolaketari dagokionez, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Garapen Ekonomikorako Departamentuak izandako kolaborazio eta koordinazio mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 10-23/PES-00022. Galdera, Enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko Programari atxikitako enpresa-kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- 10-23/PES-00023. Galdera, Donibane Lanbide Heziketako ikastetxe integratuaren barruan agertutako pindadari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- 10-23/PES-00027. Galdera, Nafarroako II. Boluntariotza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

F saila:
GALDERAK

10-23/PES-00001. Galdera, Pilar Irigoien Sodenako zuzendari-kudeatzaile kargutik kentzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Pilar Irigoien Sodenako zuzendari-kudeatzaile kargutik kentzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera idatzia aurkeztu du (10-23/PES-00001), Sodenako zuzendari kudeatzailearen kargu-gabetzeari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

Kontuen Ganberak honako hau adierazi zuen auzi hori dela-eta atera zituen ondorioetan: "Horri dagokionez, eta Sodenaren jarduketa hori testuinguruan jartzearren, honako gogoeta hauek aintzat hartu behar dira:

a) Ezin izan dugu egiaztatu Sodenak apropos jardun izana araudian ezarritakoaren kontra.

b) Kontuan izan behar da pandemiak eta alarma-egoerak salbuespenezko testuinguru bat eragin zutela.

c) Hitzarmen hori erabateko publikotasun eta gardentasunaz formalizatu zen.

Laburbilduz, CEN-Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak Albyn Medical-i helarazitako zenbatespenen arabera behar ziren maskarak erosi ziren. Esan nahi baita ez zela erosi CENek zenbatetsitakoa baino "maskara gehiago", talde

parlamentarioren batek behin eta berriro esanda-koaz bestela.

Orobat gogorarazi behar dugu Kontuen Ganberaren arabera "Hitzarmena betetzean Albynek lortutako marjina garbia 496 euro dela, txostena hau idatzi den datan. Honela kalkulatu da: CENi egindako salmentetatik lortutako sarrerei ken Sodenarekin partekatutako kontu korrontera egindako itzulketak eta bere gain hartutako finantzatu gabeko gastuak"; hau da, "egindako salmenten ehuneko 0,1". Alegia, ez da komisorik egon, talde parlamentarioren batek publikoki nahiz modu pribatuan iradoki duenaz bestela.

Kontuen Ganberak in situ egindako auditoriaren arabera, maskaren % 99,95 stockean daude oraindik ere, eta horien balioa Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuaren txostenean balioetsitakoa baino handiagoa da. Bestela esanda, ez da maskararik falta, talde parlamentarioren batek iradoki duenaz bestela.

Kontuen Ganberak dioenez: "Laburbilduz, Sodenaren jarduna uler zitekeen une hartako egoeran. Sozietate hori tresna aktiboa da maileguak emateko, eta helburua Nafarroako industria sektoreari laguntzea zen, pandemiaren ondorio larriak arintzen saiatzeko".

Azkenik, Kontuen Ganberak dio "ezin izan duela egiaztatu Sodenak apropos jardun izana araudian ezarritakoaren kontra"; izan ere, Sodenak horrela jardun zuen sinetsi zuelako "2020ko otsailaren 26ko Gobernu Erabakiak babesten zuela, eta erabaki horren bidez, baimena zuela urte horretan maileguak emateko, gutxienez ere, hamar milioi arte. 2020ko maiatzaren 27ko Gobernu Erabakiak agian indartu ere egin zuen jarrera hori, sozietate horri 15 milioi arteko maileguak egiteko baimena eman ziolako, COVID-19aren ondoriozko osasun krisiaren ondorioak arintzeko, eta zenbateko hori gehitzen zitzaion jada aipatutako aurreko erabakiak baimendutako hamar milioiko

zenbatekoari. Erabaki hori 2020ko maiatzean hartu zen, Sodenako zuzendari kudeatzaileak 2020ko apirilaren 15ean egindako eskaeraren ostean”.

Hori guztia esanda, Kontuen Ganberak honako hau ere dio: “Ganbera honek uste du Sodenak Nafarroako Gobernuari baimena eskatu behar izan zela, aztergaitzat hartu dugun akordioa eta O-NOZi NBEak emateko akordioa sinatu baino lehen. Sodenaren kontabilitatean ez zen behar bezala erregistratu eragiketa, emandako finantzaketa –izaera finantzarioko eragiketa– ezin baitzen merkataritzako zortzat jo, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiak eranskinean dioenez. Hori dela eta, legezketasuna betetzeari buruz adostutako prozeduren auditoretza egin zuen enpresari zorpetzearekin eta abalak ematearekin lotutako eragiketen zerrendan zegoela jakinarazi behar izan zitzaion.”

Kontuen Ganberaren txostenak honela jarraitzen du:

“Honako hauek dira, gure ustez, akordioaren hutsune nagusiak:

a) Akordioa gauzatzeko ezarritako diseinuek eta funtzionamenduak hutsune larria dute, enpresek ez baitzuten Albynek erositako NBEak hartzeko konpromiso formalik, nahiz eta enpresen premien araberrako erosketak egin izana.

b) Hitzarmenaren formulazioan izandako beste hutsune nabarmen bat da ez zela ezer arautu edo ezarri zehazteko zer egin behar zen diseinatutako funtzionamendua alda zezaketen ustekabekorik izanez gero, ez baitzen jarraitu beharreko prozedurarik zehaztu.

c) Akordioan ez zegoen behar bezalako bermerik, horretarako baliatutako funts publikoak behar bezala babesteko. Akordioaren idazketa eskasaren ondorioz, ez zen aurreikusitako geroago sortutako egoera: NBEen prezioa jaitsi zen, eta

akordioaren hartzaileek ez dute izakinen eskaera esanguratsurik egin. Horrek soberako izakinak eragin ditu, eta alderdiek ez dituzte beren gain hartu nahi. Izan ere, bestelakoak dira soberako izakinak banatzeari eta horren gaineko erantzukizunari buruzko interpretazio juridikoak”.

Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuaren 2022ko uztailaren 27ko txostena ere ekarri behar da gogora, 2020ko akordioari buruzko auditoretza-prozedura bat hasi izanari buruzkoa.

txosten horren ondorioak aintzat hartuta –txostenaren arabera, ez zen bete Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritakoa interes-tipoei dagokienez, eta eragiketa hori salbuespenez gaitzen duen berariazko baimenik ere ez zegoen–, Sodenako Administrazio Kontseiluak zuzendari kudeatzailea kargutik kentzea erabaki zuen abuztuaren 24an. Horri guztiari gehitu behar zaio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarekin eta kontuhartzaile nagusiarekin izan nuen elkarriketa dela-eta 2022ko abenduaren 21eko agerraldian adierazi nuena.

Arrazoi eta inguruabar horiek guztiak ikusita, Administrazio Kontseiluak, kontseilari naizen aldetik egin nuen proposamena gogoan, Sodenako zuzendari kudeatzaile kargutik kendu zuen Pilar Irigoien. Nire ustez, zuzendari kudeatzailea kargutik kentzea 2022ko abuztuan. Gisa horretako kargugabetzeak konfiantza galtzearen ondorioz gerta daiteke legegintzaldi batean zehar.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

10-23/PES-00002. Galdera, NBEak erosteko 2020ko maiatzean sinatutako lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren sinatzaileen artean galera ekonomikoak banatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, NBEak erosteko 2020ko maiatzean sinatutako lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren sinatzaileen artean galera ekonomikoak banatzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera idatzia aurkeztu du (10-23/PES-00002), NBEak erosteko 2020ko maiatzean sinatutako lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren sinatzaileen artean galera ekonomikoak banatzeari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak, Sodenako lehendakaria den aldetik, lanean aritu da eta ari da Sodena enpresa publikoaren Administrazio Kontseiluari itun bat proposatzeko "NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmena" –2020ko maiatzekoa– kitatzeko, halako moduan non hiru sina-

tzaileek beren ardura-kuota onartuko baitute biltegitratutako maskarei konponbidea ematean, Sodenak galera ekonomiko gehiago bere gain hartu behar izan gabe, Kontuen Ganberaren txostenean oinarrituta: "hitzarmenaren sinatzaile guztiak erantzunkide dira horren hutsuneei dagokienez, bilatzen den xedeaz bezainbatean bakoitzak duen interesaren arabera. Halaber, gure ustez, hitzarmenean jasotako betebeharren erantzule izateaz gain, ezarri gabeko egoeren erantzule ere izan behar dute, alderdi guztien fede onaren eta behar bezalako arretaren printzipioaren arabera aurreikusi behar zirena".

Helburua hori da, eta baldintza da Sodenaren Administrazio Kontseiluaren onespina ere izatea, bai eta Sodenaren bazkide bakarrarena ere (Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa), NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren ondorioz sortutako soberazko stocka kitatzeko, bermatze aldera "hitzarmenari lotuta egindako kudeaketa-jarduerak eta -eragiketak bat datozela hitzarmenaren xedearekin, eta beharrezko mekanismoak ezartze aldera proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezen eta baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezen".

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

10-23/PES-00004. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzeko Udalez Gaindiko Proiektu Sektorialeko eremu osagarrietan jarduketak egin ahal izateko eginkizun tekniko, ekonomiko eta administratiboei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzeko Udalez Gaindiko Proiektu Sektorialeko eremu osagarrietan jarduketak egin ahal izateko eginkizun tekniko, ekonomiko eta administratiboei buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera egin du, jakiteko ea Lurralde Kohesiorako Departamentua zer eginkizun tekniko, ekonomiko eta administratiboak ari den egiten, Nafarroako Ubidearen 1. fasea eta haren eremu ureztagarria handitzeko Udalez Gaindiko Proiektu Sektorialeko eremu osagarrietako jarduketan balizko tankeratzea xede harturi (10-23/PES-

00004). hona Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunaren erantzuna:

1.- Zer eginkizun dira horiek?

2.- Noiztik ari dira eginbidean?

3.- Eginkizun horietako bakoitzaren amaierape aurreikusia.

4.- Horien xehetasunak.

Egindako galderak direla-eta adierazi behar dizut Nafarroako Gobernua 2022tik ari dela lanean Leringo lurzati-berrantolamenduan, zeina Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren mende baitago.

2023an, berriz, emakida-espeditatea prestatuko dugu Ebroko Konfederazio Hidrografikoan, bai eta obren fiantzaketari buruzko azterlan juridikoa ere, Egako adarra bukatuta dagoenean.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 1ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

10-23/PES-00005. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioaren artean funts europarren kontura proiektuak gauzatzeko sinatutako lankidetzahitzarmenaren jarraipen-batzordeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioaren artean funts europarren kontura proiektuak gauzatzeko sinatutako lankidetzahitzarmenaren jarraipen-batzordeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Jorge Esparza Garrido jaunak Nafarroako Gober-

nuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak Europako funtsekin finantzatutako proiektuak aurrera eramateko lankidetzahitzarmenaren jarraipen-batzordeari buruz (10-23/PES-00005). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Informazio hau 10-23/PEI-00017 informazioeskariari erantzunez igorri zaio Esparza Garrido jaunari.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-23/PES-00006. Galdera, helmuga-dezilaren arabera, dezil bakoitzean jasotako mugikortasunaren deskonposizioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, helmuga-dezilaren arabera, dezil bakoitzean jasotako mugikortasunaren deskonposizioari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du helmuga-dezilaren arabera, dezil bakoitzean jasotako mugikortasunaren deskonposizioari buruz (10-23/PES-00006). Hona Nafarroa-

ko Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Mikrodatu fiskalak erabilia egin zen analisia, Nastat-ek urtero egiten duen Nafarroako populazioaren errentaren estatistikan oinarrituta. Azterlana multzoka egin zen, dezila-tarte predeterminatu bakoitzerako. Hau da, tarteko deziletan (3-8) modu bateratuan egin zen, eta gaur egun ezin da deskonposatu dezila zehatz bakoitzaren arabera: ez dakigu zer mugikortasun zeukan jatorrizko hamar deziletako bakoitzak destinoko hamar dezila bakoitzaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

10-23/PES-00007. Galdera, iristeke dauden REACT funtsak Nafarroara iristeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, iristeke dauden REACT funtsak Nafarroara iristeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera idatzia aurkeztu du (10-23/PES-00007), Nafarroari dagozkion REACT funtsei buruz. Hona Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kon-

tseilari Mikel Irujo jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

- Zer aurreikuspen egiten duzue iristeke dauden REACT funtsak Nafarroara iristeari buruz, esleitutako 148 milioiak jaso arte? Azkenean iritsiko al dira esleitutako 148 milioi horiek, edo zenbateko txikiagoa iritsiko da azkenean Nafarroara?

Aurreikuspena da –gaur– REACT Nafarroako esleitutako 148 milioiak jasoko direla. Diru-sarreraren banaketa, funtsen arabera, honako hau da:

Diru-sarrerak 2023an eta 2024an iristea aurreikusuten da: % 50 2023 eta % 50 2024an. Halere, horiek jasotzeko erritmoa proiektuak betetzeko erritmoaren eta Europako Batzordeari ziurtagiria gortzeko erritmoaren arabera izanen da.

Columna1	Aurrekontua	Diru-sarrerak
REACT FEDER proiektuak	107.553.440,17	107.553.440,17
REACT FEDER laguntza teknikoa	2.151.068,81	2.151.068,81
REACT FEDER diru-sarrerak, guztira	109.704.508,98	109.704.508,98
REACT FSE proiektuak	36.087.161,56	36.087.161,56
REACT FSE laguntza teknikoa	748.775,00	748.775,00
REACT FSE, esleitzeke	1.351.590,36	1.351.590,36
REACT FSE diru-sarrerak, guztira	38.187.526,92	38.187.526,92
REACT funtsak, guztira		147.892.035,90

- Xehatu gaur arte REACT funtsetan sartutako proiektuetan Nafarroan betetako ekintzak eta zenbatekoak.

Honekin batera doan taulan jasota ageri da REACT proiektuen betetzea, urtez urte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

FEDER CODIGOSAE	LGP	JARDUKETA	AURREKONTUA	2020	2021	2022	2023	Guztizko orokorra
NA20	E-21/000409-01	REACT Aliantzak I+G Digitalizazioa	2.515.755,14			408.368,96		408.368,96
NA20	E-21/000410-01	REACT Aliantzak I+G Trans Energetikoa	2.436.081,51			300.998,51		300.998,51
NA20	E-21/000418-01	REACT Banda zabala / GIGABIT	5.175.000,00			262.858,67	2.017,11	264.875,78
NA21	E-21/000390-01	REACT - TELELANA	1.338.900,00			44.295,86	259.278,12	303.573,98
NA22	E-21/000351-01	REACT Lekarozko haztegia	0,00				87.832,85	87.832,85
NA22	E-21/000352-01	REACT S3 eremuak digitalizazioa / INDUSTRIAL	0,00				13.954,18	13.954,18
NA22	E-21/000352-02	REACT S3 eremuak digitalizazioa / AZPIEGITURAK	845.000,00			85.123,50	30.713,83	115.837,33
NA23A	E-21/000329-01	REACT NAEX Digitala	1.257.092,23		64.004,16	436.070,45		500.074,61
NA23B	E-21/000369-01	REACT Turismoa eta merkataritza digitala	1.050.000,00		234.992,83	288.586,37	37.851,99	561.431,19
NA24	E-22/000437-01	REACT Kirol entitateentzako laguntzak	1.250.000,00			488.043,97		488.043,97
NA24	E-22/000437-02	REACT Kirol enpresentzako laguntzak				195.238,82		195.238,82
NA26	E-21/000338-01	REACT Bioerregaiak	7.604.000,00		670.000,00	2.279.347,63		2.949.347,63
NA28	E-21/000336-01	REACT NAVEAC Ibilgailu elektrikoa	4.443.750,00		888.750,00	1.777.500,00		2.666.250,00
NA29	E-21/000317-01	REACT Nafarroako Jauregia efiz. eta jas.	4.001.790,00		120.349,52	851.064,79	203.177,54	1.174.591,85
NA29	E-22/000482-01	Ubarmineko est. aldatzea	2.842.350,00					0
NA31	E-21/000386-01	REACT FALTZES	1.000.000,00		18.089,50	497.646,84		515.736,34
NA32	E-22/000484-01	Sakana ekoduktoa	6.400.000,00					0

FEDER CODIGOSAE	LGP	JARDUKETA	AURREKONTUA	2020	2021	2022	2023	Guztizko orokorra
NA33	E-21/000335-01	REACT Artze jauregia zaharberritzea	3.866.080,00		57.556,49	330.220,31	1.452,00	389.228,80
NA33	E-21/000395-01	REACT Alloz jasangarria	1.438.000,00			103.284,71		103.284,71
NA34	E-21/000403-01	REACT CS Tuter	4.689.649,00		698.352,31	1.335.690,86	209.955,73	2.243.998,90
NA34	E-21/000403-02	REACT CS Nafarroa Iparraldea eta Ekialdea	14.610.351,00			2.070.402,09	724.881,41	2.795.283,50
NA34	E-21/000403-03	REACT NUO osasun-azpiegiturak	2.334.867,81					
NA35	E-21/000416-01	NUO Ekipamendu medikoak eta sanitarioak berritzea eta handitzea	5.489.800,00			312.474,57		312.474,57
NA35	E-21/000416-02	GOO Ekipamendu medikoak eta sanitarioak berritzea eta handitzea	1.510.200,00			28.737,50	206.910,00	235.647,50
NA36	E-21/000339-01	REACY Ikastetxeetako irisgarritasun unibertsala	1.452.895,00		49.881,50	266.728,15	85.879,51	402.489,16
NA36	E-21/000372-01	REACT Sesma HLHIP	3.607.573,54		73.479,77	923.111,92		996.591,69
NA36	E-21/000373-01	REACT Agoizko DBHI	3.691.229,22		3.026.715,30			3.026.715,30
NA36	E-21/000374-01	REACT Zudairiko HLHIP	3.149.882,90		600.531,99	1.957.300,08	364.327,73	2.922.159,80
NA36	E-21/000376-01	REACT Lezkairuko HLHIP	8.723.257,68		1.999.987,65	4.189.020,08		6.189.007,73
NA36	E-21/000377-01	REACT Andrés Muñoz Garde HBIP	3.993.421,79		76.661,99	3.473.508,33		3.550.170,32
NA36	E-22/000531-01	Sarrigurengo BHI handitzea	2.588.902,69					
NA37	E-21/000340-01	REACT Eraikinak egokitzea / Airearen kalitatea	958.202,31		65.000,00	881.344,32	11.850,00	958.194,32
NA38	E-99/000022-01	REACT COVID-19 maskarak	3.289.408,00	3.289.811,97				3.289.811,97
Guztizko orokorra			107.553.439,82	3.289.811,97	8.652.208,10	23.817.722,09	2.240.415,61	38.000.157,77

EGIF	CODIGOSAE	LGP	JARDUKETA	AURREKONTUA	2021	2022	2023	GUZTIRA
AUT		E-21/000413-06	REACT Autonomoentzako laguntzak	9.000.000,00	2.438.447,71	2.971.082,02		5.409.529,73
BEREZIA		E-22/000439-01	REACT Enplegu sozial babestua ESB)	12.982.515,75	4.714.439,00	2.899.490,01		7.613.929,01
KID		E-21/000326-01	REACT Proyecto KIDEAK	1.165.716,00	249.613,43	498.343,12		747.956,55
CDE		E-21/000413-05	REACT Enplegarritasun zaileko kolektiboak	4.500.000,00		4.498.306,97		4.498.306,97
BEREZIA		E-21/000411-01	REACT Enpresa dinamizazioa - EDEN ekintzailatza	1.600.000,00		364.997,00		364.997,00
MOD		E-21/000413-03	REACT Pertsona eredu asistentziala	1.020.000,00		131.125,00	114.280,83	245.405,83
PIF		E-21/000413-04	REACT PIFES	2.955.000,00		600.448,02	651.698,33	1.252.146,35
REA		E-21/000413-02	REACT COVID-19 Langileak birlerrokatzea	1.005.000,00		59.759,04	175.480,13	235.239,17
IKT		E-21/000413-01	REACT TICS-SCHOOL programa	760.000,00		46.257,50	7.858,68	54.116,18
VUL		E-22/000436-01	REACT Kolektibo ahulen enplegarritasuna hobetzea	1.098.929,37		409.156,74		409.156,74
Guztizko orokorra				36.087.161,12	7.402.500,14	12.478.965,42	949.317,97	20.830.783,53

10-23/PES-00008. Galdera, zainketen aldeko Foru Itunean ezarritako ekintzak gauzatzeko toki-entitateendako finantzaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zainketen aldeko Foru Itunean ezarritako ekintzak gauzatzeko toki-entitateendako finantzaketari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu NAFARROA talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak idatzizko galdera egin du (PES-00008); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Zainketen aldeko Foru Itunean ezarri da ekintza zehatzak eta neurgarriak eginen direla zainketak ikusgai egiteko, aitortzeko, partekatze eta birbanatzeko. Hori dela-eta, parlamentari naizen honek hauexek jakin nahi dut:

Zer finantzaketa mota emanen zaie toki-entitateei zainketa-beharrei erantzuteko xedea duten zerbitzuak edo programak sortzeko?

Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntza Zaintzen aldeko Toki Itunak

Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez (aurrerantzean, NABI), uste du lehentasuneko dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea, genero berdintasuneko politikak bultzatzea toki-esparruan lan egituratu, sistematiko eta koordinatua eginez toki entitateekin, erantzuna emanaz lurralde-errealitateen berezitasunei nahiz beharri zanei.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak, bestalde, administrazio publikoak premiatzen ditu baliabideak jar ditzaten pertsona guztien bizitzaren jasangarritasuna errazteko, eta aitortzen bai etxeko lanak bai mendekotasuna duten pertsonen zaintzak duten eginkizun sozial eta ekonomikoa, bai eta ez ordainsaririk ez aitortza

profesionalik jasotzen ez duten jardura feminizatuak ere.

Halatan, NABIk, bizitzaren jasangarritasunean eta zaintzen balioan oinarritutako eredu sozioekonomiko baterantz joateko xedez, Nafarroako Gobernuako departamentuekin eta toki entitateekin lankidetzan, Zainketen aldeko Nafarroako Itunak programa garatzen du.

Toki entitateen berezitasun eta beharrian horiei erantzuteko, NABIk dirulaguntzen deialdi bat onetsiko du, Zainketen aldeko Nafarroako Itunak programan parte hartzen duten eta itun horien bidez emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko proiektuak egiten dituzten toki entitateei zuzendua.

Deialdi horretan aurreikusten da Zainketen aldeko Toki itunak programan sartutako ekintzak egitea toki entitateek, baldin eta eskabidearen uean zainketen aldeko toki itun bat sinatuta badaukate edo, programan 2022ko abenduaren 31 baino lehen programan parte hartuta, 2023an sinatuko badute.

Deialdi hori, ikusi denez, tresna egokia da zainketen bidez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko helburuak bultzatzeko; hartara, 100.000 euro bateratu dira guztira, toki entitateentzako transferentzien partidaren kargura, NABIren berdintasun-politikak bultzatzeko.

Honako hauek dira diruz laguntzen ahal diren ekintzak: zainketen arloko erronkei eta beharri zanei aurre egiteko konponbideak bilatzera bideratutako ekintza zehatz eta neurgarriak, toki entitateek, baldin eta eskabidearen uean zainketen aldeko toki itun bat sinatuta badaukate edo, programan 2022ko abenduaren 31 baino lehen programan parte hartuta, 2023an sinatuko badute, eginak. Diruz lagundutako proiektuak 2023ko urtarrilaren 1etik azaroaren 10era bitarte bete beharko dira.

- Zainketen arloko sentsibilizazioa, balioak aldatzeko eta unibertsalizatzeko.

- Zainketen nahiz gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza/gaikuntza.

- Barne-neurriak, zainketak administrazio langileen eta entitate sozialen, publikoen eta pribatuen artean banatzeko.

- Zainketekin lotutako politika publikoak edo ekintzak, herritarrei zuzenduak, administrazioak eta entitate publiko eta pribatuek bultzatuta.

- Zainketak banatze aldera herritarrei zuzendutako neurriak eta ekintzak, gizarte entitateek proposatu eta bultzatuak.

Laguntza teknikorako kontratua

Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna lortzeko beharrianari erantzun bat emateko xedez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 17/2019 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenaren bidez, zainketei dagokienez (legeak sistemaren erdigunean paratzen du pertsona guztientzako zainketa duinen bermea eta bizitzaren jasagarritasuna, politika publikoen zeharkakotasuna bultzatuta), kontratu erraztuaren bidez lizitatzea proposatzen da Zainketen aldeko Nafarroako Itunak programarako laguntza teknikoa.

Kontratuaren xedea da laguntza teknikoa ematea Zainketen aldeko Nafarroako Itunak programa abian jartzean eta ezartzean aholku, prestakuntza eta koordinazio espezializatua emateko, hala foru itunean nola zainketen aldeko toki itunetan.

Prestazioen artean daude:

- Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekiko koordinazioa.

- Lan-saioak antolatzea eta kudeatzea eta Zainketen aldeko Nafarroako Itunak programako prestakuntza.

- Zainketen aldeko Nafarroako Itunak programako txostenak eta lanerako materiala taxutzea.

- Foru itunari buruzko prestakuntza entitateei eta departamentuei, eta Zainketen aldeko Toki Itunei buruzkoa udalei eta entitateei.

- Bisitak parte hartzea eskatu duten udal eta entitateetara, Zainketen aldeko Toki Itunak programa aurkezteko.

- Toki itun bakoitzaren eta bere parte-hartze organoen koordinazioa.

- Aholkularitza Zainketen aldeko Toki Itunak sinatu dituzten udal eta entitateei.

- Zainketen aldeko Nafarroako Itunak programaren jarraipena eta ebaluazioa.

NABIk ez daukanez beharrian horiei erantzuteko baliabide berekirik, horiek kanpoan kontratatzea proposatu du. Kontratuaren esleipena prozedura erraztuaren bidez egin da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 80. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 22ko 83/2022 Ebazpenaren bidez, Zainketen aldeko Nafarroako Itunak programarako laguntza teknikoaren kontratua esleitu zen:

[https://hacienda.navarra.es/sicpportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?](https://hacienda.navarra.es/sicpportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=3207&Ticket=22122211580830358316)

Cod=3207&Ticket=22122211580830358316

Bi partidak osatzen zuten finantzaketa:

- 080001 08200 2269 232200 partida: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko jarduketak.

- 080001 08100 2269 232203 partida: Generozeharkakotasunaren arloko jarduketak.

Partida horietan sartzen dira diruz lagungarriak diren ekintzak, komunikazio-materialak taxutzera bideratuak: komunikazio-planak eta publizitatea webguneeetan nahiz euskarri fisikoan, eta urteko lan-programak garatzeko gaikuntza-jardunaldiak.

Eskubide Sozialetako Departamentuak, gainera, honako finantzaketa hau dauka Nafarroako toki entitateek beren eskumeneko zerbitzuak edo programak sortu edo hobetu ditzaten, zainketen arloko beharriari erantzutearren:

Toki entitateentzako edo toki entitate jakin bazuentzako finantzaketa, eguneko zentroak eraikitze edo erreformatzeko, zaharren edo/eta medekotasuna dutenen zainketen arloko beharriari erantzuteko. Finantzaketa horretan honako partida hauek daude:

- 920005 93100 7609 231B12 Toki entitateentzako dirulaguntzak, eguneko zentroetarako.

- 920005 93100 7609 231B05 Antsoaingo Udalarekiko hitzarmena. Berrikuntzak eguneko zentro komunitariorako.

- 920005 93100 7609 231B06 Sartagudako Udalarekiko hitzarmena, eguneko zentro bat eraikitze proiektua taxutzeko.

Toki entitateentzako finantzaketa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak finantzatu beharreko zerbitzuetarako edo udal eskumeneko zerbitzuekin lankidetzan aritzeko.

- 900003 91600 4609 231502 Oinarrizko gizarte zerbitzuak.

- 900003 91600 4609 231503 Toki entitateentzako deialdia, etxeko laguntza-zerbitzua handitzeko planerako.

2023rako, Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako eki-
poak finantzatzeko hitzarmenetan gauzatzen den

ohiko finantzaketarekin batera (horretan, ez da bereizketarik egiten 4 zerbitzuen artean eta, hortaz, dena ez dago zainketekin lotuta), etxeko laguntza zerbitzua jasotzen baitzuen jada, finantzaketa gehigarria ere badago etxeko laguntza zerbitzuaren zainketak handitu ahal izateko:

Toki entitateentzako finantzaketa, jarduerak antolatzeko, halako moduan non adingabeek (baita desgaitasunen bat dutenek ere) zainketak jasoko baitituzte eta gurasoek nahiz adingabe horien ardura dutenek kontziliatu ahal izateko eta denbora gehiago izateko autozainketetarako edo beste pertsona batzuk zaintzeko.

- 920006 93300 4609 231500 Toki entitateentzako dirulaguntzak, kontziliazio programetarako.

Toki entitateentzako finantzaketa, osasun arazo ez-akutuak eta gizarte-arazoak dauzkaten pertsonen zainketan laguntzeko Osasun Arreta Integratu Sozial eta Sanitarioaren Proiektuaren bidez:

- 900000 90000 4609 233100 Toki entitateetiko hitzarmenak, Osasun Arreta Integratu Sozial eta Sanitarioaren Proiekturako.

Toki entitateentzako finantzaketa, etxerik gabekoentzako zainketetarako.

- 900003 91600 4609 231500 etxerik gabeko pertsonentzako harrera-zerbitzua.

Toki entitateentzako finantzaketa, zahartzen ari diren pertsonak edo beste zerbaitengatik beren autonomia funtzionala sustatzea behar duten pertsonak zaintzeko:

- 920005 93100 4609 231B02 Toki entitateentzako dirulaguntza, autonomia sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko programetarako.

Toki entitateentzako finantzaketa, zaharrak edo mendekotasun psikologiko edo emozionala dutenak zaintzeko:

- 920005 93100 4609 231B11 Toki entitateentzako finantzaketa, zaharrei edo/eta mendekotasuna dutenei laguntza psikologikoa eta emozionala emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00009. Galdera, zainketen aldeko Foru Ituna gauzatzeko kronogramari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zainketen aldeko Foru Ituna gauzatzeko kronogramari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu NAFARROA talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak idatzizko galdera egin du (PES-00009); horren bidez, honako informazio hau eskatu dio Nafarroako Gobernuari:

Zainketen aldeko Foru Itunean ezarri da ekin-tza zehatzak eta neurgarriak eginen direla zainketak ikusgai egiteko, aitortzeko, partekatze eta birbanatzeko. Horri buruz, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

Zein izanen da 2023rako ekintzen kronograma, itunean finkatu diren eta itunaren xede orokorrari erantzuten dioten lau helburu estrategikoak lortze aldera?

Helburuak lortzeko:

- OE1 - Administrazioek eta administrazioetan zaintza sustatzea, gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna lortzea politika publikoen erdigunean jarrita.

- OE2 - Zainketek bizitzari eusteko duten balioa aitortzea.

- OE3 - Emakumeen pobrezia murriztea Nafarroan.

- OE4 - Nafarroako enpresen eta organizazioen berdintasunarekiko konpromisoa bultzatzea.

Foru Itunaren barruan, 2023ko lana honako bi hauen lantaldeen artean garatuko da paraleloki:

- Foru Ituneko departamentuak edo/eta zuzendaritza nagusiak.

Lan-saioak eginen dituzte hilean behin, 2023ko lan-programa abian jartzeko, bai eta

prestakuntza-saioak ere 2023ko ekainetik abendura bitarte.

Hona 2023an zehar eginen diren ekintzen xehetasunak:

- Nafarroako gizartea eta herritarrak zainketak direla-eta sentsibilizatzeko komunikazio eta publizitate plan bat kontzeptualizatzea.

- Komunikazio eta publizitate plan bat taxutze-ko parte-hartze prozesua. Foru ituneko entitateek komunikazio-briefing-ari egindako ekarpenak, saio prestatu eta gidatu batean.

- Komunikazio eta publizitate planaren lehen fasea: kanpainaren sormena eta sentsibilizazio planaren euskarrien definizioa. planeko kontratazioak egin aitzin briefing-a azaltzeko saioak.

- Departamentuetako zuzendari nagusiei eta bureei hasierako prestakuntza ematea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, zainketen eta Foru Itunaren garapen nahiz funtzionamendu arloan.

- Irakasleentzako prestakuntza-programa bat taxutzea, haien urteko prestakuntza planetan sartzeko.

- Administrazio-ko langile guztientzako prestakuntza-programa bat taxutzea eta NAPiri proposatzea.

- Zainketen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza-programa bat taxutzea, enpresei zuzendua.

- Zainketen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza-programa bat taxutzea, kirol arloko entitateei eta langileei zuzendua.

- Departamentuek herritarrei zuzendutako dirulaguntzak berrikustea, zainketen kontzeptuekin eta Foru Itunarekin bat egiteko.

- Departamentuek toki entitateei zuzendutako dirulaguntzak berrikustea, zainketen kontzeptuarekin bat egiteko eta toki itunetako neurriekin eta Foru Itunarekin koordinatzeko.

- Departamentuek herritarrei zuzendutako dirulaguntzak berrikustea, zainketen kontzeptuarekin bat egiteko eta toki itunetako neurriekin eta Foru Itunarekin koordinatzeko.

- Foru Ituneko gizarte-entitate publiko eta pribatuak

Lan-saioak eta prestakuntza-saioak eginen dira txandaka 2023ko ekainera bitarte, itunean urte eta erdi baino gehiago lanean daramaten Nafarroako Gobernuako departamentuen edo/eta zuzendaritza nagusien prestakuntza-maila eta itunean 2022ko apiriletik daramatzaten gizarte entitateena parekatzeko.

2023ko ekainetik aitzina, bateratu eginen dira ituneko entitateetako eta zuzendaritza nagusietako edo/eta departamentuetako taldeak, entitateak zuzendaritza nagusien edo/eta departamentuen

prestakuntza-mailara iristen direnean, Foru Itunean 2021eko maiatzean sartu baitziren.

Ondotik, laburpen-taula.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00010. Galdera, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, lurzoru urbanizaezinean artegi bat legeztatzeko Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, lurzoru urbanizaezinean artegi bat legeztatzeko Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-23/PES-00010 idatziz erantzuteko galdera egin du. Hona hemen Lurraldearen Antolamenduko, etxebizitzako, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak horri buruz jakinarazi beharrekoa:

1.- Nafarroako Gobernuak dakiela, Kasedako Udalarari aurreko ebazpen hori jakinarazi ondoren, Udalak erabakirik hartu al du ebazpena betetze aldera?

Ez dakigu.

2.- Nafarroako Gobernuak dakiela, Kasedako Udalak erabaki al du eraikuntza edo artegia, zeinaren legeztatzea aipatu ebazpenak ukatu zuen?

Eraikitako artegiaren egoera dela-eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak dauzkan azken datuen arabera, SEPRONAK 2022ko urriaren 24an egindako ikuskapen-txostenean jasotzen denez, artegia ez da erabaki.

3.- Ingurumena Zaintzeko Atalak eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

Ikuskapen akta hori egin ondoren, Ingurumena Zaintzeko Atalak ez du inolako jarduketarik egin ebazpenaren ondotik.

4.- Ingurumen Eraginaren Atalak eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

Ingurumen Eraginaren Atalak dio bere eskuemen esparruan ezin duela inolako ebazpenik eman Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalaren ezezko txosten baten ondorioz lurzoru urbanizaezinean baimen bat ukatzeagatik.

Proiektuari buruz Lurralde eta Paisaia Zerbitzuak 2017ko ekainaren 6an igorritako txostenean esaten da ez dela ingurune naturalaren gaineko afekzio adierazgarririk. Dena den, honako hau dio:

- Eremu hartako Basozaintzak dio 2.000 m² baino gehiagoko azalera zelaituko zela; proiektuan egiaz jasotako azalaren halako bi baino gehiago, alegia.

- OT02 Espedientean jasota dator Arkeologia Atalaren txostena, proiektuaren jarduketa-eremuan kokatzen duena "El Planaz La Tejería" aztarnategi erromatarra eta 50 metroko babes-eremua gordetzera baldintzatzen duena eraikuntza, 50 metro horiek eremu horren kanpo-perimetrotik neurtuta (UTM ETRS89 huso 30N koordinatuen bidez zedarrituta).

5.-Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak (Herri-lurren Atala) eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak ez zuen informatu 46E/2021 Ebazpena ekarri zuen prozeduran, ez baitzitzaion galdetu, eta ez du inolako ebazpenik eman 46E/2021 Ebazpena betearazteko.

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuari helarazi zion ezezko ebazpena, zerbitzu horrek ez baitu ebazpen hori bete ez izanari buruzko berririk.

6.-Zerbitzu Juridiko eta Lurralde Plangintzakoak eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

saia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena, Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak arestian aipatutako eraikuntza dela-eta hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko espediente izapidetu du, eta horren ondorioz heldu da eraispen-agindua. Espedienteak honako dokumentu eta ebazpen hauek jasotzen ditu:

- 2021/5/5. 46E/2021 Ebazpena, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuarena; horren bidez, ukatu egin da Kasedako 9. poligonoko 1. lurzatian ardi-artegi bat –Kasedako Udalak sustatuta– parartzeko baimena.

- 2021/8/30. SEPRONari eskaria, ikuskapena egin dezan.

- 2021/9/15. SEPRONaren txostena.

- 2021/12/27. 112E/2021 Ebazpena, Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko espediente bat abiatu baitzen, Kasedako Udalak 9. poligonoko 1. lurzatian egindako lanak direla-eta.

- 2022/06/27. 85E/2022 Ebazpena, Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebatzi baita Kasedako Udalak 9. poligonoko 1. lurzatian –El Planaz alderdian– egindako lanak direla-eta hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko espediente. Ebazpen horrek Kasedako Udalarari agintzen dio eraikitako artegia eraitsi dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik, lurrak fisikoki itzul daitezten urraketa egin baino lehenagoko egoerara.

- 2022/10/11. SEPRONari eskaria, ikuskapena egin dezan.

- 2022/10/24. SEPRONaren txostena.

- 2023/01/16. Urtarrilaren 16ko 5E/2023 Ebazpena, Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez lehendabiziko heretsapen-isuna –600 eurokoa– ezarri baitzaio Kasedako Udalarari, aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko agindua ez betetzeagatik. Ebazpen horren bidez 3 hilabeteko epe bat eman zen berriz ere, Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren ekainaren 27ko 85E/2022 Ebazpenaren bidez agindutako eraispena bete zedin.

7.-Zer jarduketara egin ditu Ondare Historikoaren Zerbitzuak (Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atala) erromatarren garaiko egiturak artegia eraiki zen tokian mantentzen direla babesteko?

2017ko maiatzaren 18an, Ondare Historikoaren Zerbitzuak Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari informatu zion 0001-OT02-2017-000014 espedienteaz (Kasedako 9. poligonoko 1. lurzatian abere-artegi baten proiektua dela-eta arkeologia-ondarearen gaineko balizko afekzioak).

2017ko maiatzaren 23an, atal horrek Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari informatu zion artegia paratzeak zeuzkan mugei buruz, El Planaz-La Tejería (Kaseda 49) izeneko arkeologia-aztarnategi gisa katalogatutakoaren gainean egoteagatik.

Proposatzen zena zen artegia aztarnategiaren gainean jar zedina ekiditea –izan ere, lurzatia Udalarena eta handi samarra zen– eta lurzati horretako beste gune batean paratzea.

2017ko urriaren 18an, atal horrek Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari informatu zion Kasedan artegi bat eraiki zela 9. poligonoko 1. lurzatian. Informazio horretan ohartarazten zen –lehenago ere egin bezala– ez zela kontuan hartu lurzati horretan horretarako muga bat zegoela El Planaz (Kaseda 49) arkeologia-aztarnategia dagoelako; hori dela-eta, debeku zen horren gainean eraikitzea, eta gomendioa zen lurzatioko beste gune batera mugitzea, arkeologia-ondareari kalte egitea ekiditeko.

2020ko martxoaren 20an, atal horrek Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari informatu zion ezen, ikuskapen-bisita tekniko bat egin ondoren, artegia eraikita zegoenez, ezinezkoa zela zehaztea obra horrek aztarnategian zer kalte egin zuen, batez ere lurra berdintzeko aurretiazko lanak egin bitartean. Lurra mugitutako eremu guztia hartzen du eraikuntzak egun; beraz, ezinezkoa da zehaztea obra horrek arkeologia-ondareari zer kalte egin dion.

2022ko ekainaren 9an, Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalak Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari –Araubide Juridikoaren eta Lurralde Antolamenduaren Atalari– informatu zion Kasedako 9. poligonoko 1. lurzatian kokatutako ardi-artegiari dagokionez hirigintzaren arloko legezketasuna lehengoratzeko espediente dela-eta Udalak aurkeztutako alegazioez.

8.-Ondare Historikoaren Zerbitzuak (Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atala) eman al du ebazpenik Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena,

Kasedako Udalak eskatutako baimena ukatzen duena, betetze aldera?

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Lurralde eta Paisaia Zerbitzua da espediente hori izapidetzeko eta egoki irizitako ebazpenak emateko ardura duena. Ondare Historikoaren Zerbitzuak espediente hori dela-eta egin diren txosten guztiak igorri dizkio unitate horri.

9.-Lurralde eta Paisaia Zerbitzuak maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpena eman ondoren, Nafarroako Gobernuak unitate administratiboren batek ireki al dio espedienterik Kasedako Udalarari xedapen hori bete dezan?

6. galderari emandako erantzunera jo.

10.-Baiezkoan, zeintzuk izan dira eta zein egoeratan dago espediente hori?

6. galderari emandako erantzunean azaldutakoak dira Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak izapidetu duen espedientearen –hirigintzaren arloko legezketasuna lehengoratzeko espedientearen– aurrekariak.

Espedientea zertan den? Kasuko espedientea izapidetu denez –ondorioz, eraisteko agindua heldu da–, agindu hori irmoa denez, ez baita horren aurkako errekurtsorik aurkeztu, orain agindua bete bete behar da. Kasedako Udala eraisteko agindua bete behar duena, zuzendaritza nagusi honek exijitu duenari jarraikiz, baina oraindik ez da halakorik egin; beraz, nahitaezko betearazpeneko tresnak baliatzen ahal dira orain, hertsapenisunak ezarrita, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 2ko 39/2015 Legearen 99. artikuluan eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigin-

tzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen Legegintzako Foru Dekretuaren 207.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 16ko 5E/2023 Ebazpenaren bidez, lehendabiziko hertsapen-isun bat –600 eurokoa– ezarri da aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko agindua ez betetzeagatik, eta horren ondotik, hilabetez hilabete, beste batzuk jartzen ahalko dira, hamabira bitarte hain zuzen ere, 6.000 eurokoa izateraino, departamentu honen aitzinean kreditatu arte agindutakoa bete dela.

11.-Ezezkoan, zer arrazoi egon dira Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko maiatzaren 5eko 46E/2021 ebazpena ez betetzeko?

Ez da bidezkoa.

12.-Ez bazaio ireki espedienterik Kasedako Udalarari, zein arduradun administratibok edo politikok hartu du erabaki hori?

Ez da bidezkoa.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 10ean

Lurraldearen Antolamenduko, etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

10-23/PES-00011. Galdera, Kattalingune zerbitzuak LGTBI+ pertsonen emandako arretaren inguruko datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nuria Medina Santos andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kattalingune zerbitzuak LGTBI+ pertsonen emandako arretaren inguruko datuei buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Nuria Medina Santos andreak idatzizko galdera egin du (PES-

00011); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1. LGTBI+ pertsonen emandako arretari buruzko zer datu eman ditu Kattalingune zerbitzuak eremu bakoitzean, eratu zenez geroztik? Datuak ahalik eta xehakatu egon daitezela eskatzen da

Hori dela-eta, honekin batera doaz legegintzaldi horri buruzko urteetako justifikazio-memoriak (2019, 2020 eta 2021). 2022ko oroitidazkirik oraindik ez daukagunez, datuak ondoko tauletan emanen ditugu.

Nabarmendu egin behar da datuak behin-behinekoak direla, 2022ko oroitidazkirik oraindik ez daukagulako. LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzuak berak emandako hiru hilez behingo txostenetatik atera ditugu datuak.

Harrera, Informazio eta Orientazio Programa.

	Arreta jaso duten pertsonen kopurua	Arreta jaso duten kasuen kopurua
Iruña	109	110
Tutera	28	31
Irurtzun	18	18
Lizarra	19	19
Tafalla	10	10
Guztira	184	188

Arreta Sexologikoa

	Arreta jaso duten pertsonen kopurua	Arreta jaso duten kasuen kopurua
Iruña	79	189
Tutera	16	70
Irurtzun	13	25
Lizarra	6	12
Tafalla	17	15
Guztira	121	311

Laguntza Juridikoa

	Arreta jaso duten pertsonen kopurua	Arreta jaso duten kasuen kopurua
Iruña	64	115
Tutera	3	6
Irurtzun	1	1
Lizarra	2	2
Tafalla	1	1
Guztira	71	125

Zerbitzuaren aurkezpenak 48

Kolektiboentzako laguntza 33

2. Zer proiektu aurkeztu ditu Kattalingorri elkar-teak Kattalingune zerbitzua kudeatzen aritu den urteetan?

LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzua 2016az geroztik ematen da, dirulaguntza izendun baten bidez. Dirulaguntza hori jasotzeko, proiektu bat aurkeztu beharra dago dirulaguntza jaso aitzin. Hobeki erantzun ahal izateko, legegintzaldi honetako proiektuak (2019, 2020, 2021 eta 2022) erantsi behar direla uste dugu.

3. Zein dira departamentuaren lehentasunak, Kattalingune zerbitzuak bete beharreko gutxienezko eskakizunak finkatzeko orduan?

NABI-Nafarroako Berdintasunerako Institutuak LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzuari dagokionez duen lehentasun nagusia da izan beharreko oinarrizko laguntza-programak ezartzea, sendotzea eta bermatzea. Horretarako, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea hartu da kontuan; izan ere, 13.9 artikuluan honako hau ezartzen da "Nafarroako Gobernuak, halaber, bermatuko du LGTBI+ pertsonen arreta emateko zerbitzu publiko bat egon dadila, errealitate horretan adituak diren langileek artatua, zein bereiz artatuko baitira sexu-identitatearekin eta -joerarekin lotutako gaia.

Adingabeen kasuan, haien familientzako arreta berezia ere jasoko da".

Maila teknikoan orobat hartu dira gogoan Pertonendako laguntza talde integralen espezifikotasunak; talde horietan, harrera-laguntza, informazioa eta deribazioa bermatzen dira, bai eta laguntza psikologiko, sexologiko eta juridiko espezializatua ere, Nafarroako gobernuak ematen

dituen gisa bereko beste zerbitzuetan egiten den moduan.

Eta orobat hartu dira gogoan NABIko LGTBI+ Berdintasunerako Zuzendariordetzak esleituta dauzkan eginkizunak, zeinak Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen urriaren 30eko 260/ Foru Dekretuak jasotzen baititu. Hona eginkizun horiek laburbilduta:

- Sustapena (profesionalak, parte hartzeko prozesuak, ekintzak eta efemerideak) eta sentibilizazioa (kanpainak, nazioarteko egunak eta programak)

- Arauak, protokoloak, planak eta programak bultzatzea

- Prestakuntza

- Kolektiboentzako laguntza (Nafarroako LGTBI+ Kontseilua, dirulaguntza-lerroak, aholkularitza, akonpainamendua eta laguntza)

- Komunikazioa

- Prebentzioa

- Ikerkuntza

- Zeharkakotasuna

Ondoko taulan ikus daitekeenez, LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko zerbitzuaren arreta LGTBI+ pertsonentzako nahiz horien familientzako arreta zuzenera bideratzen da, informazio, harrera eta gizarte-akonpainamenduko programen bidez.

- Laguntza psikologikoa eta sexologikoa - Laguntza Juridikoa

260/2019 Foru Dekretuan ezartzen denez, gainerako programak LGTBI+ Berdintasunerako Zuzendariordetzak hartuko ditru bere gain.

NABiko LGTBI+ berdintasunerako Zuzendariorde					
LGTBI+ POLITIKA PUBLIKOEN ARLO TEKNIKOA			LGTBI+ PERTSONENTZAKO LAGUNTZA INTEGRALAREN BALIABIDEA		
PROGRAMAK			PROGRAMAK		
LGTBI+ ENTITATEENTZAKO, KOLEKTIBOENTZAKO ETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZA	PREBENTZIOA: SUSTAPENA ETA SENTSIBILIZAZIOA	KOMUNIKAZIOA ETA ZABALKUNDEA	INFORMAZIOA, HARRERA ETA GIZARTE- AKONPAINAMENDUA	LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA SOXOLOGIKOA	LAGUNTZA JURIDIKOA
ARAUDIA, PLANAK, PROTOKOLOAK PRESTAKUNTZA	IKERKUNTZA	NG ETA TE ZEHARKAKOTASUNA			

LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko zerbitzuarekin NABik duen beste lehentasun bat da langileak pertsonalizatzen jarraitzea zerbitzuaren kargura, lanbide-profilen erregularizazioaren bidez. Zerbitzuak gizarte-laneko profil bat izanen du, informazio, harrera eta gizarte-akonpainamenduko programaz arduratuko dena, bi profil psikologiko, laguntza psikologiko eta sexologikoko programaz arduratuko direna eta profil juridiko bat, laguntza juridikoaren programaz arduratuko dena. Nabarmendu beharrekoa da

sexologiaren edo sexu- eta genero-aniztasunaren arloko prestakuntza osagarria eduki behar dela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 18an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-23/PES-00012. Galdera, Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresak haren publizitate-liburuxketan Caparrosoko abeltegitzarrari aipamena egiteko “BIO” hitza erabiltzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresak haren publizitate-liburuxketan Caparrosoko abeltegitzarrari aipamena egiteko “BIO” hitza erabiltzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresak bere publizitate-liburuxketan Caparrosoko abeltegitzarrari aipamena egitean “BIO” hitza erabiltzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko (EE) 834/2007 zenbakiko Erregelamendua, zeinaren bidez indargabetu baitzen 2092/91 zenbakiko (EEE) 2018/848 Erregelamendua, indargabetuta dago 2018ko ekainaz geroztik, orduan sartu baitzen indarrean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/848 (EB) Erregelamendua, ekoizpen ekologikoari eta produktu ekologikoen etiketei buruzkoa, zeinaren bidez indargabetu baitzen Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamendua.

1. Departamentuak inolako jarraipenik egin al du jakiteko Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresak “BIO” terminoa erabili ote duen bere publizitate-liburuxketan eta adierazpen publikoetan?

2021eko ekainaren 17an, Valle de Odieta SCL enpresari ohartarazi zitzaion ekoizpen ekologikoari dagozkion terminoak bidegabeki erabili zituela publizitate liburuxka batean –antza denez, enpresara egindako bisita batean banatu zitzairen Nafarroako Parlamentuko talde parlamentarioetako

ordezkariei–, eta adierazi zitzaion arau-hauste larriak direla, besteak beste, honako hauek, Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deitueri eta adierazpen geografiko babestuei buruzko maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen arabera (ekoizpen ekologikoari aplikatzekoa, Nafarroako 2016rako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren indarrez):

Lege honetan araututako produktuen etiketa, aurkezpena edo publizitatea egitean BJDaren edo AGBaren araudi zehatzean ezarritakoa betetzen ez duten edo nahasketa sor dezaketen izendapenak, adierazpenak, kalifikazioak, esamoldeak edo zeinuak erabiltzea, arau-hauste oso astunetan aurreikusitako kasuetan salbu.

- BJDaren edo AGBaren arau zehatzak ez betetzea ezaugarriari, ekoizpenari, elaborazioari, eraldaketari, kontserbazioari, biltegitzeari, garraioari, etiketatuari, ontziratzeari edo aurkezpenari dagokienez.

Ohartarazpen-zehapenaren definizioa honako hau da: arau-hausleari bere jokabidearen okerraz eta berriro gertatuz gero izan ditzakeen ondorioez ohartaraztea. Ohartarazpen honetan, Valle de Odieta SCL enpresari adierazi zitzaion 6/2015 Legearen 34. artikulua ezartzen duela arau-hauste larri horiek direla-eta 2.000,01 eta 30.000 euro bitarteko isuna jar daitekeela, eta arau-hauste horiek berriro gertatuz gero berrerortze gisa hartuko litzatekeela ezar litekeen isuna ezartzean.

Ohartarazpen orenen kasuan ohartarazitako ez-betetzea dela-eta arau-hausleak izandako jokabidearen jarraipena egin beharra dago; besteak beste, ukitutako aldeek edo ohartarazpen horren ostean NNPEK-Kontrol Ekologikoaren Nafarroako Agintaritzak hori dela-eta egindako salaketak ikertzea. Horren jarraipena egitean (zenbait entitate arau-hausleri egindako ohartarazpenetan jarraitu den prozedura berarekin) eta jasotako salaketak barne, ez da detektatu aplikatu beharreko araudian ezarritakoa urratu denik, Valle de Odieta SCL enpresaren etiketatze eta publizitatean ekoizpen ekologikoari buruzko terminoak erabiltzeaz dezan bezainbatean.

2. Departamentuak aurreikusi al du kontrol-mekanismoak abian jartzerik merkataritza-enpresa

horrek Caparrosoko abeltegizarrari buruz “BIO” terminoa behin eta berriro erabiltzean kontsumitzaileak eta erabiltzaileak nahasaraz ez ditzan?

1. galderari emandako erantzunean adierazi dugunez, ohartarazpen ororen kasuan ohartarazitako ez-betetzea dela-eta arau-hausleak izandako jokabidearen jarraipena egin beharra dago; besteak ukitutako aldeek edo ohartarazpen horren ostean NNPEK-Kontrol Ekologikoaren Nafarroako Agintaritzak hori dela-eta egindako salaketak ikeretzea, 2021eko ekainaren 17ko ohartarazpenetik egiten ari garen moduan. Jarraipen hori egin bitartean, eta hori dela-eta egindako zenbait informazio-eskariak eta jasotako erantzunak aintzat hartuta, oraingoz ez da detektatu aipatu araudian ezarritakoaren kontrako ez-betetzea den ezer ere hertsiki, ekoizpen ekologikoari dagozkion terminoak etiketetan edo enpresaren publizitatean bidegabeki erabiltzeari dagokionez.

3. 3.-Zehazki, Departamentuak uste al du aipatu diren egitateak, bereziki publizitate-liburuxkan eta abeltegian “BIO” terminoa behin eta berri erabiltzea, falta larria izan litezkeela maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen –Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deiturena eta adierazpen geografiko babestuen– betetzeari dagokionez eta, gainera, egitate horiek urra dezaketela Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko (EE) 834/2007 zenbakiko Erregelamenduan xedatutakoa?

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/848 (EB) Erregelamendua (ekoizpen ekologikoari eta produktu ekologikoen etiketei buruzkoa, indarrrik gabe uzten duena Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamendua), 3. artikuluan (Definizioak), 53. apartatuan, honela definitzen du publizitatea: produktuak jendea aurkeztea etiketa ez beste edozein baliabide erabiliz, helburua edo ustezko ondorioa izanik jendearen jarreretan, iritzietan eta portaeran eragitea, produktuen salmenta sustatzeko, zuzenean edo zeharbidez. Bestalde, 30. artikulua (Ekoizpen ekologikoari buruzko terminoen erabilera) honako hau dio:

1. Erregelamendu honen ondorioetarako, produktu batek ekoizpen ekologikoari dagozkion terminoak erabiltzen dituela ulertu behar da baldin eta, etiketan, publizitatean edo agiri komertzialetan produktua bera, haren osagaiak edo hura ekoizteko erabilitako pentsuen lehengaiak deskribatzen diren moduagatik, erosleari iradokitzen bazaio erregelamendu honi jarraituz ekoitzi direla produktua bera, osagaiak edo pentsuetarako lehengaiak. Zehazki, IV. eranskinean

zerrendatutako terminoak eta horien eratorriak eta laburdurak, hala nola «bio» edo «eko», bereiz nahiz konbinaturik, Europar Batasun osoan eta eranskin horretan zerrendatutako hizkuntzetatik edozeinetan erabiltzen ahalko dira 2. artikuluan 1. apartatuan aipatzen diren produktuen etiketetan eta publizitatean, erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen badute.

2. Bigarren artikuluan 1. apartatuan aipatzen diren produktuen kasuan, artikulua honen 1. apartatuan aipatutako terminoak ez dira erabiliko, Europar Batasuneko ezein lekutan eta IV. eranskinean zerrendatutako hizkuntzetatik ezeinetan, erregelamendu honek xedatutakoa betetzen ez duten produktuen etiketak, publizitatea edo agiri komertzialak egiteko. Halaber ez dira etiketetan eta publizitatean erabiliko marka erregistratueta edo enpresaren izenetan erabilitako terminoak, ez eta produktu batek edo haren osagaiak erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen dutela iradokiz kontsumitzaile edo erabiltzailea nahastu dezaketen praktikak ere. Araudi horrekin bat etorritz, uste dugu adierazitako gertaerak, 2021eko ekainaren 17ko ohartarazpena baino geroagoak, ez direla hertsiki aipatu araudian ezarritakoaren kontrako ez-betetzea, ekoizpen ekologikoari dagozkion terminoak etiketetan edo enpresaren publizitatean bidegabeki erabiltzeari dagokionez. Izan ere, erabili da prentsako zenbait artikulutan eta itxuraz enpresaren barnekoa den dokumentazioan erabili da “bio-abeltegia” terminoa. Ez dirudi, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/848 (EB) Erregelamenduan 3. artikuluko (Definizioak) 53. apartatuan dagoen definizioaren arabera, zeina arestian aipatu baitugu, bidegabeko terminoak edo praktikak erabili direnik etiketetan edo publizitatean, kontsumitzaile edo erabiltzailea nahastu dezaketenak, produktu bat edo haren osagaiak ekoizpen ekologikokoak direla iradokiz.

4. Valle de Odieta SCL merkataritza-enpresari zehapen-espediterik irekitzen ez bazaio Zehapen espeditentea irekitzen ustez, zer jokabide izan beharko luke Departamentuak Caparrosoko abeltegizarrak “BIO-abeltegi” izena erabiltzea ekiditeko?

Baldin eta, Nekazaritza Zerbitzuaren iritziz, Valle de Odieta SCL enpresak arau-hauste larriak egiten baditu, horrela tipifikatuak Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deiturei eta adierazpen geografiko babestuei buruzko maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen 31. artikuluan 1. apartatuaren f) letran eta k) letran (ekoizpen ekologikoari aplikatzekoa 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016

Foru Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera), zehapen espedientea hasiko da, kontuan harturik ezen, ez-betetze horiek arau-hauste larritzat jotzen badira, 6/2015 Legearen 34. artikuluari jarraituz 2.000,01 eta 30.000 euro bitarteko isuna dagokiela, eta arau-hauste horiek behin eta berriz egitea berrerortzetzat joko litzatekeela ezar litekeen zehapena erabakitzerakoan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2023ko otsailaren 15ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-23/PES-00013. Galdera, Remontivaleko ikasgela alternatiboak 21 urte arteko ikasleetara hedatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Remontivaleko ikasgela alternatiboak 21 urte arteko ikasleetara hedatzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko Bakartxo Ruiz jaso andreak idatziz aurkeztu duen 10-23/PES-00013 galderari Hezkuntzako kontseilariak honako hau jakinarazten du:

Estellerriko ikasleek une honetan dauzkaten beharrian guztiei ematen diete erantzuna Remontival ikastetxeko ikasgela alternatiboek.

Hezkuntza Berezian EBO1 dago Lehen Hezkuntzan eta EBO2 Bigarren Hezkuntzan.

Modalitate arruntekoak baina hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskaintzan ere bi ikasgela daude Lehen Hezkuntzan, bata Remontivalen eta bestea Santa Anan, bai eta Curriculum Bereziko Unitate bat ere Tierra Estella BHIIn, eta Lanbide Heziketa Bereziko programa bat Lizarrako IPIIn. Azken programa horretan, ikasleen eskolatzea 21 urtera bitarte luzatzen da.

2023-2024 ikasturterako ez da beharrezkoa, baina Bigarren Hezkuntzan eskolatutako ikasleen ezaugarriak ikusita bestelako erantzun bat behar baldin balitz –Helduarora Igarotzeko Programa (orain arte Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan eta San Adrián BHIIn solikik eskaintzen da, eremuko beharrianak direla-eta)–, derrigorrezkoaren ondoko ikastetxean programa berariazko hori eskainiko litzateke.

Iruñean, 2023ko otsailaren 10ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

10-23/PES-00014. Galdera, Errenta Bermatuaren prestazioa jasotzeko eskubidearen kontrolari eta jarraipenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA


Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Errenta Bermatuaren prestazioa jasotzeko eskubidearen kontrolari eta jarraipenari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera bat egin du Errenta Bermatuaren prestazioa jasotzeko eskubidearen kontrolari eta jarraipenari buruz (10-23/PES-00014). Hona Nafarroa-



Jarraipen eta kontrol prozedurei erreparatuta, zenbait inguruabarrek eragiten dituzte kontrol hauek:

1. Interesdunak proposatuta, prestazioa jasotzeko kontuan hartu ziren inguruabarrak aldatzen

ko Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

1.- *Gobernuak egin al du inolako kontrolik eta jarraipenik Errenta Bermatua jasotzen duten pertsonen egoeraren gainean, eskubideaz baliatzeko baldintzak betetzen segitzen dutela egiaztatzeko?*

2.- *Nola eta noiz?*

1. eta 2. puntuei dagokienez adierazi behar dizut ezen, prestazioa jasotzeko baldintzak egiaztatzeko hasierako balorazioa egiteaz gain, errenta bermatuaren espedienteen kasuan zenbait egiaztapen egiten direla errenta hori jasotzen den bitartean, errenta mantentzeko baldintzak betetzen direla bermatzen dutenak.

Hona, modu eskematikoan, jarraitzen diren prozedurak:

dituen gertakirien bat komunikatzearen ondorioz (Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen 18.a) artikuluan ezarritako betebeharrari jarraikiz): "Errenta bermatua onesterakoan kontuan hartu ziren unitate jasotzaileen ezauga-

rrietan edozein aldaketarik gertatuz gero, haren berri ematea aldaketa gertatu eta hamabost egun balioduneko epean". Adierazi beharra dago ezen errenta bermatuaren eskabidean jasota ageri dela informatu egin dela zer eskubide eta zer betebeharrak dakarren prestazio ekonomiko hori jasotzeak.

2. Hilero-hilero bi kontrol-mota egiten dira ofizioz:

a. Espediente aktibo guztiak begiratzen dira administrazioen arteko elkarreragingarritasun-sistemen bidez; kontuan hartu behar da hilean 13.400 espediente aktibo egon zirela 2022an, eta 27.000 onuradun batez beste hilean. Hauxek, nagusiki:

i. Enplegu-eskaeran alta eta mantentzea

ii. Gizarte Segurantzako afiliazioan alta (lan-kontratuak)

iii. Osasun txartelean baja

b. Eskubide Sozietako Departamentuak urtero onesten duen Ikuskatze Planaren barruan egindako ikuskapenak. Ikuskapen horietan, hilean 20 espediente ingurutan egiaztatzen da baldintzak bete eta mantentzen ote diren.

3. Administrazioen arteko koordinazio-sistemak, aldiro SIPSSNET aplikazioaren bidez oinarritzko gizarte-zerbitzuen kasuan, posta elektronikoz edo/eta telefonoz, espedienteetan izandako aldaketei buruzko inguruabarren bat komunikatzeko beharra sortzen denean:

a. Oinarritzko gizarte-zerbitzuek, pertsonen laguntza emateko eta akonpainamendu soziala egiteko eginkizunean, errenta bermatua kudea-

tzeko zerbitzuari helarazten diote baldintzak mantentzeari, balizko aldaketei eta abarri buruzko informazioa. Gizarte zerbitzuetako oinarritzko laguntza-sistemak errenta bermatuko espediente-erako sarbidea dauka, halako moduan non dokumentazioa erantsi edo abisuak aktibatzeke modua baitauka SIPSSNET aplikazioa baliatuta.

b. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin, sistema horietako prestazio berrietarako sarbidea gertatzen denean eta aldi berean errenta bermatua jasotzen denean.

c. Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin, 18.c) eta d) artikuluetan ezartzen diren betebeharrak kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko protokoloaren bitartez, zeinen bidea jakinarazten baitira betebeharrak horien ez-betetzeak Nafar Lansare – Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren berariazko kontratazio-deialdietatik heldu diren eskaintzen nahiz lan arloko orientabidea jasotzeko deialdien esparruan.

Jarraipen horren ondorioz zenbait administrazio-prozedura egin beharra dago hasierako balorazioaren ondoren (prestazioa aldatzeko, bertan behera uzteko edo/eta amaiazteko prozedura arruntak). Hasierako inguruabarretan izandako aldaketen prozedura arrunt horien ondorioz berariazko bestelako prozedura batzuk eragin ditzakete, hala nola itzulketa-prozedura abiaraztea, gora jotzeko errekurtoa edo zehapen-prozedurak.

Ondoko taulan, prozedura horien bilakaera ageri da:

Kudeaketa-prozesuak	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
I. fasea: Balorazioa	14290	17666	16016	16258	17904	19735	18569
Artxiboa	672	829	726	762	931	1226	1552
Ematea	12454	15171	14038	13919	15236	16585	15064
Ukatzea	1164	1666	1252	1577	1737	1924	1953
II. fasea: Kontrola eta jarraipena , prozedura arruntak	6113	9150	11534	13906	15217	25433	29638
Azkentzea	1775	1549	1970	2808	1749	3146	4013
Aldaketa	3326	5433	6832	8104	11206	18699	21770
Etetea.	1012	2168	2732	2994	2262	3588	3855
II. fasea: Kontrola eta jarraipena, berariazko prozedurak	382	498	707	1354	1164	1320	1750
Beste batzuk	35	10	17	41	23	20	22
Erreklamazioa	283	383	551	1141	887	1007	1447
Errekurtsoa ezestea	53	89	111	139	132	140	152
Errekurtsoa baiestea	10	13	15	18	11	30	43
Zehapenak	1	3	13	15	111	123	86

3.- Zenbat pertsonari eten zaie prestazioa jasotzeko eskubidea kontrol edo jarraipen horien ondorioz? Xehatu datuak etenduraren arrazoiaren arabera, urteka 2016az geroztik eta udalerrika.

3. galderari dagokionez, zerbait argitu behar da ezer baino lehen: bertan behera utzitakoen datuak eskatzen dira galderan. Prestazioa eteteko eta amaiarazteko zioei buruz galdetu nahi dela iruditzen zaigu, zeren laugarren puntuari eskatzen baita ea zenbat denbora igaro den gero onartu arte. Kudeaketaren arloan, araudiak ezartzen duenez, prestazioa etetea kautelazko mekanismo bat da, ordainketa eteten duena, ezen ez aitortutako eskubidea; hortaz, ondotik ematen duguna informazioa etetei eta amaiarazteei buruzkoa eta horretarako zioei buruzkoa da. Orobat argitu

behar da prestazioa amaiarazteko zioak espedientei lotzen zaizkiela, eta, hortaz, pertsona berari buruzko amaiarazte eta etete zio bat baino gehiago egon daiteke; hortaz, ondotik ematen dugun informazioa prestazioa amaiarazteko zioen batek ukitutako pertsonari buruzkoa da, urtez urte eta herriz herri. Halaber, ohartarazi behar dugu ezen 2016aren amaiera aldean araudia aldatu zela eta, horrenbestez, 2017tik aitzina beste zio batzuk egon direla prestazioa amaiarazteko eta eteteko, 2016an ez bezala. (1).

4.- Pertsona horietako zenbati aitortu zaie berriz ere prestazioa jasotzeko eskubidea eta hura jaso gabe zenbat hilabete egon ondoren?

Galdera horri dagokionez, honako hauek dira datuak:

URTEA	pertsonak	Geroago onartutako pertsonak	Eskabiderik gabeko hilabeteak, batez beste
2016	5027	3356	23
2017	4011	2314	25
2018	4600	2625	22
2019	5319	3193	22
2020	4121	2198	22
2021	4841	1568	19

"Pertsonak" zutabearen ageri dira urte horretan prestazioa eten edo amaiarazi zaien pertsonak. Pertsona horietatik, "Geroago onartutako pertsonak" zutabearen ageri dira prestazioa eten edo amaiaraztea ekarri zuen espedientearen ondotik prestazioren bat onartu zaien pertsonak. Azken zutabearen ageri da batez beste zenbat hilabete igaro diren erreferentziazko eskabidetik (eten edo amaiarazi zena) eta onartu zen hurrengora arte.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria, Carmen Maeztu Villafranca

1. Oharra: Eranskin hori foru parlamentariaren eskura dago kudeaketa parlamentarioko Ágora aplikazioan.

10-23/PES-00015. Galdera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei dagokienez, Nafarroari esleitutako funtsetatik itzuli beharko direnen zenbatekoaren estimazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei dagokienez, Nafarroari esleitutako funtsetatik itzuli beharko direnen zenbatekoaren estimazioari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 678 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2023ko urtarrilaren 16an (10-23/PES-15), Nafarroari esleitutako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak ematen dion informazioa:

1. Maileguak direla kontuan hartuta, egin al duzue zenbatespenik itzuli beharko den zenbate-

koari buruz (azkenean Nafarroara iristen denari dagokionez)?

2. Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zenbatespenetako zenbatekoa, eta xehatu zenbateko hori aurrekontu-partidatan.

3. Erantzuna ezezkoa bada, noiz izanen du prest Gobernuak zenbatespen hori?

1. galderari dagokionez adierazi behar dizut ez dela itzuli beharrekoren zenbatespenik egin, zeren jasotako funtsak eta jasotzea aurreikusten ditugunak (447 milioi)(ez dira mailegua, baizik eta Estatuaren transferentziak.

Mailegu gisa jaso daitezkeen funtsak 2024tik 2026ra bitarte Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren gehigarriarekin lotuta daudenak dira.

Horrenbestez, 2. eta 3. galderak ez daukate zentzurik, ez dagoelako aurreikusita inolako itzulketarik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

10-23/PES-00016. Galdera, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarterako proiektuaren kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarterako proiektuaren kostuari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

“Joan den 2023ko urtarrilaren 10ean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko kontseilari Itziar Gómezek agerraldia egin zuen Parlamentuan, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkartea (KINE) aurkezteko. Hori dela-eta, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

Zer gastu sorrarazi dute –kontzeptuka eta kostu motaren arabera xehatuta– eta zer inbertsio egin dituzte Nafarroako Gobernuak, haren depar-

tamentuek, enpresa publikoek eta partikularrek eta erakunde parte-hartzaileek, 2020az geroztik, Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarteren (KINE) proiektuan?”

Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

KINE-Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkarteren proiektua ez da oraindik erregistratu Espainiako Medikamentuaren eta Osasun Produktuen Agentzian. Ikertzaileak aurkezpenarako azken xehetasunak taxutzen ari dira eta, hortaz, oraindik ere ez da garatzen hasi eta ez du inolako kosturik ekarri.

2023ako aurreikusi den aurrekontua Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren 200.000 €-ko aurrekontu-partida bat da – zehazki, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiarena–, eta horrekin finantzatuko dira aurten egin beharko diren gastuak; honako hauek, hain zuzen ere: intsumoak, ikertzaileen kontratazioa, laborantza-lursailaren egokitzapena eta laborategiko analisiak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-23/PES-00017. Galdera, Nafarroan egiaztatutako familia gurasobakarrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan egiaztatutako familia gurasobakarrei buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Nafarroan egiaztatutako familia gurasobakarrei buruz (10-23/PES-00017). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Sistema informatikoan kontsulta gisa lehentsita dauden datuak dira ematen diren datuak. Eskatutako zenbait auzik berariazko txostenak egitea eskatzen dute, eta une honetan ez daukagu halakorik.

1.- Zenbat familia gurasobakar daude akreditatuta gaur egun Nafarroan? Xehatu kopurua urteka 2019az geroztik, familia-unitateko kideen kopuruaren arabera eta bizi diren udalerrien arabera.

- 2023-01-18an akreditatuta dauden familiak: 2.903

- 2019an akreditatutako familiak: 437
- 2020an akreditatutako familiak: 1.427
- 2021ean akreditatutako familiak: 1.583
- 2022an akreditatutako familiak: 2.173

Oraingoz ezin dugu eman familia-unitateko kide kopuruaren eta bizilekuaren arabera berezitateko daturik.

2.- Familia akreditatutakoetatik zenbatek egin dute akreditazio hori 5/2019 Foru Legearen 3.1. artikuluari jarraikiz (familia gurasobakarrak)? Xehatu kopurua arauak jasotzen dituen lau aukeretako bakoitzaren arabera, bai eta urtearen, kide kopuruaren eta udalerrien arabera ere.

- 2019an akreditatutako familiak: 437
- guraso bakar bat: 177

- alarguna, edo parekoa: 50
- guraso-ahala eskusiban: 50
- harrera bidez: 3
- 2020an akreditatutako familiak: 1.427
- guraso bakar bat: 351
- alarguna, edo parekoa: 175
- guraso-ahala eskusiban: 116
- harrera bidez: 12
- 2021ean akreditatutako familiak: 1.583
- guraso bakar bat: 347
- alarguna, edo parekoa: 141
- guraso-ahala eskusiban: 145
- harrera bidez: 13
- 2022an akreditatutako familiak: 2.173
- guraso bakar bat: 446
- alarguna, edo parekoa: 200
- guraso-ahala eskusiban: 201
- harrera bidez: 7

Oraingoz ezin dugu eman familia-unitateko kide kopuruaren eta bizilekuaren arabera berezitateko daturik.

3.- Familia akreditatuetatik zenbatek egin dute akreditazio hori aipatutako legearen 3.2. artikuluari jarraikiz (gurasobakartasun-egoerako familiak)? Xehatu kopurua arauak jasotzen dituen sei aukeretako bakoitzaren arabera, bai eta urtearen, kide kopuruaren eta udalerrien arabera ere.

- 2019an akreditatutako familiak: 437
- Zaintza eta jagoletza eskusiban: 119
- Genero-indarkeriaren biktimak: 36
- Espetxean sartuak: 2
- Mendekotasun/desgaitasun/ezintasun handikoak: 0
- 2020an akreditatutako familiak: 1.427
- Zaintza eta jagoletza eskusiban: 659
- Genero-indarkeriaren biktimak: 109
- Espetxean sartuak: 2

– Mendekotasun/desgaitasun/ezintasun handi-koak: 0

- 2021ean akreditatutako familiak: 1.583

– Zaintza eta jagoletza eskusiban: 850

– Genero-indarkeriaren biktimak: 79

– Espetxean sartuak: 8

– Mendekotasun/desgaitasun/ezintasun handi-koak: 0

- 2022an akreditatutako familiak: 2.173

– Zaintza eta jagoletza eskusiban: 1.226

– Genero-indarkeriaren biktimak: 90

– Espetxean sartuak: 6

– Mendekotasun/desgaitasun/ezintasun handi-koak: 1

Oraingoz ezin dugu eman familia-unitateko kide kopuruaren eta bizilekuaren arabera berezitateko daturik.

4.- Hasitako prozeduretatik zenbat baztertu dira titulua abiarazi denez geroztik? Xehatu datuak, ukatzeko arrazoia-
ren arabera

292 akreditazio-eskabide ukatu ziren.

Oraingoz ezin dugu eman ukatzeko arrazoia-
ren arabera berezitateko daturik.

5.- Batez beste, zenbat denbora igarotzen da ebazpena eman eta jakinarazi arte?

Gaur, eskabidea jasotzen den unetik akredita-
zioa igortzen den arte hilabete inguru igarotzen da batez beste.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-
lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Car-
men Maeztu Villafranca

10-23/PES-00018. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailtza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa antolatzeko Mondragon Unibertsitatea hautatu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ikus-entzunezko Ekintzailtza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa antolatzeko Mondragon Unibertsitatea hautatu izanari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko Isabel Olave Ballarena andreak 10-23/PES-00018 galdera egin du idatziz erantzun dakion, jakiteko ea zergatik aukeratu duen Garapen Ekonomikorako Departamentuak Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako hiru unibertsitateetako edozein aukeratu beharrean, hitzarmen baten bidez Ikus-entzunezko Ekintzailtza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa antolatzeko, egoitza Lekarozko Enpresa-campuseko CILa izanen duena. Hona Garapen Ekonomiko eta Enpresari-leko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunaren erantzuna:

Ikus-entzunezkoen sektorea da Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren S4 Estrategian lehenetsitako sektoreetako bat. Garapen erregio-garapeneko strategiako leheneste horrek markatu ditu Garapen Ekonomikorako Departamentuak garatu beharreko politika publikoak. Politika publiko horiek ikus-entzunezkoen ekoizpenerako pizgarri fiskal batzuk barne hartzen dituzte, jardura ekonomikoko sektore gisa indartu dadin.

Tresana horek zenbait urtez aplikatu ondoren egiaztatu da enpresa-sektore handiago behar dela –kopuruan nahiz tamainan– horiek hobeki aprobetxatzeko.

Gauzak horrela, S4-aren barruan jorratzen den elkarrizketa publiko-pribatuan, sektoreak adierazi du beharrezkoa dela talentua sortzea eta aldi berean ekintzailtza sustatzea. Gogoan darabile-

tana prestakuntza labur bat da, espezializaziokoa, master tankerakoa, ikus-entzunezkoetako gradudunentzat edo sektoreko profesionalen prestakuntza etengaberako.

Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak ikusi zuen egiteko bikoitz hori Mondragon Unibertsitateak egin zezakeela, espezializazio handia baitu ekintzailtzarako prestakuntzan; izan ere, Nafarroan ekintzailtzaren arloan dihardutenek aintzatesitako titulazio bat dauka, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza, Espainian ekintzailtzari buruz dagoen nazioarteko unibertsitate-gradu bakarra, alegia. Mondragon Unibertsitateak eskarmentua ere badu ikus-entzunezkoen sektorerako prestakuntzaren arloan.

Halere, aurrena Nafarroan dagoen prestakuntza-eskaintzaren azterketa egin zedin agindu genuen, bai eta eskaintza eginez gero eskaria egongo zela berrestea ere. Ondorioa izan zen Nafarroan ez dagoela ikus-entzunezkoen edukiei buruzko unibertsitate-prestakuntzarik. Nafarroako Unibertsitatean zegoen masterra Madrileko campusera eraman zuten.

Bestalde, eskaintzari eta eskariari buruzko azterketa horretan, sektorean elkarrizketaturiko pertsonak baieztatu zuten interesa egon bazegoela ikus-entzunezkoen arloan ekintzailtza-prestakuntza jasotzeko.

Hortaz, prestakuntza-eskaintza taxutzen hasi ginen Mondragon Unibertsitatearekin, lurraldearen beharrezkoen erreparatuta (Nafarroako Gobernuak eta sektoreak berak helarazitakoak, batez ere Ikus-entzunezkoen Nafarroako clusterraren bitartez).

Horren ondorioz, graduondoko titulu bat eskaintzen da, Ikus-entzunezko Ekintzailtza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa, 12 ECTSkoa (300 ordu).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Garapen Ekonomiko eta Enpresari-leko kontseilari: Mikel Irujo Amezaga

10-23/PES-00019. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailletza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren antolaketari dagokionez, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Garapen Ekonomikorako Departamentuak izandako kolaborazio eta koordinazio mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ikus-entzunezko Ekintzailletza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren antolaketari dagokionez, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Garapen Ekonomikorako Departamentuak izandako kolaborazio eta koordinazio mailari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 27ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko Isabel Olave Ballarena andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, jakiteko ea Mondragón Unibertsitateak Lekarozko Enpresa-campuseko CILean emanen duen Ikus-entzunezko Ekintzailletza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren

antolaketari dagokionez, zer kolaborazio eta koordinazio maila egon den Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren eta Garapen Ekonomikorako Departamentuaren artean. Erantzun honen bidez, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak adierazi behar dizu Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak Unibertsitateen zuzendari nagusiari informatu diola ikus-entzunezko ekintzailletza eta berrikuntza arloko prestakuntza-eskaintza hori dela-eta gogoan darabilen ideari buruz eta egin diren urratsei buruz, eta zuzendari nagusi horrek balorazio positiboa egin du. Eskaintzen ari den aditu-titulazioko irakaskuntza-mota horrek ez du eskatzen Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiaren onespenerik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedatua betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 23an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

10-23/PES-00022. Galdera, Enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko Programari atxikitako enpresa-kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko Programari atxikitako enpresa-kopuruari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 27ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Osasuneko kontseilariak honako hau erantzun dio EH Bildu talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak aurkeztutako galdera idatziari (10-23-PES-00022), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

- Zenbat enpresa batu dira Enpresaren kudeaketan prebentzioa txertatzeko programara?
- Zenbat bilera egin dira enpresekin programa azaltzeko? Zer enpresak parte hartu dute bilera horietan?
- Egin al da azterlanik osasun-agentearen balizko figura sortzearen bideragarritasuna eta egokitasuna neurtzeko?

Hauxe da informazioa:

Prebentzioa enpresaren kudeaketan sartzeko programa Lan Osasuneko 2022-2025 Ekintza Planeko gainerako programa operatiboekiko zeharkakoa da.

Zerbitzuak egiten dituen gainerako jarduketan aldean bestelako ikuspegi bat daukala ikusita, eta horretarako tresna bereziak garatu behar direnez, gure planteamendua da arian-arian ezartzea Nafarroako enpresetan.

Hasiera batean, hiru dira esperientzia pilotuak: sektore soziosanitarioa (zehazki, zahar-etxeak), nekazaritzako elikagaien industria eta Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea. 2022ko irailean hasi zen lanean, Integrazio programatik, sektore soziosanitarioan (programaren lehenbiziko pilotua). Aurrena zehaztu zen xede-populazioa izanzen zirela 100 langile baino gutxiagoko zahar-etxeak, enpresa-taldeetakoak ez direnak.

Horretarako, bilerak egin dira programan parte hartzea sustatzeko beharrezkotzat jo diren gizarte eragileekin.

Baldintza horiek ezarrita, 44 zahar-etxetara jo genuen.

Horietatik, 7 batu ziren programara (% 16). Gainera, erakutsitako interesa ikusirik, hasierako taldean ez zeuden beste hiru batzea onartu zen; hartara, taldea 10 zahar-etxek osatu zuten azkenean.

Bilerak egin dira gizarte eragileekin, enpresekin, Eskubide Sozialetako Departamentuarekin eta Gesinor Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuarekin. Zehazki, honako bilera hauek egin ziren programa azaltzeko eta programarekin bat egitea eskatzeko:

Eskubide Sozialetako Departamentua: 3 bilera.

– Lares taldea. Bilera bat, zeinean Eskubide Sozialetako Departamentua ere egon baitzen.

– Lares taldea eta Gesino Prebentzio Zerbitzua. Bilera bat.

– Nafarroan ordezkari gehien dituzten 4 sindikatuarekin bilera. Hiru sindikatu etorri ziren bilerara.

– Nafarroan ordezkari gehien dituzten 4 sindikatuarekin sektore soziosanitarioko arduradunekin bilera.

– 2 bilera gure programaren xede diren enpresetako prebentzioko ordezkariarekin.

– Gure programaren xede diren enpresak. 2 bilera bideokonferentzia bidez.

Gaian interesaturik egon daitezkeen zahar-etxe guztiei eskaini diegu geure burua (horrela batu ziren azkenean hasierako irizpideak betetzen ez zituztenak), eta kanpainari eta enpresekiko bilerari buruzko informazioa banatu da (banaketa zuzena, Eskubide Sozialetako Departamentuaren bitartez eta Lares elkartearen bitartez, eta abar). Zahar-etxeekin egindako zuzeneko bileran 25 zahar-etxe egon ziren.

Oraindik ez diogu ekin osasuneko agentearen figura sortzearen bideragarritasunari buruzko azterlanari, 2023-2024 aldiaren egitea aurreikusten baitugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-23/PES-00023. Galdera, Donibane Lanbide Heziketako ikastetxe integratuaren barruan agertutako pintadari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Donibane Lanbide Heziketako ikastetxe integratuaren barruan agertutako pintadari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 27ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioak egindako 10-23-00023 galdera idatziari erantzunez, Hezkuntzako kontseilariak honako hau dio:

Hezkuntza Departamentuak abiarazten du era guztietako pintaketa bandalikoak kentzeko prozedura, behin kalteen berri daukanean. Galderan aipatzen den pintaketaren kasuan ere abiarazi zen urgentziazko jarduketa hori.

Urtarrilaren 9an, eskola-oporretatik bueltan, ikastetxeak ikusi zuen "U28 Iruñara" jartzen zuten pintaketak egin zituztela. Ikastetxeak berak aurkeztu zuen salaketa Iruñeko Udaltzaingoan, eta prozedura abiarazi zuen, argi-emailearen hornitzaileari pantaila aldatzeko aginduta.

Urtarrilaren 24an, ikastetxeak Hezkuntza Departamentuari baieztatu zion kartela aldatuta zegoela.

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

10-23/PES-00027. Galdera, Nafarroako II. Boluntariotza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako II. Boluntariotza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 27ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00027), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1.- Egin al da jada Nafarroako II. Boluntariotza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioa –dokumentu horretan 2022ko abendurako aurreikusita zegoen–?

2.- Ezezkoan, zertan da prozesua eta noizko espero da ebaluazioa eskura egotea?

Lehenik eta behin, Nafarroako II. Boluntariotza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioa dela-eta erakutsi duzun interesa eskertu nahi dizut.

2022ko abenduan hasi ziren Nafarroako II. Boluntariotza Planaren (2022-2023) tarteko ebaluazioa egiteko lanak, eta plan horren gaineko informazioa eta kontuak ematen dituen Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren webgunean, berriz, orain dela gutxi.

Honako hau da, zehazki: tarteko ebaluazioan sartzeko esteka:

https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/evaluacion_intermedia_iiplanvoluntariado_navarra.pdf

Orobat gogorarazi behar dizut webgune horretan ikusten ahalko duzula planeko ekintzen betetzea zertan den, planean berean konpromiso hori hartu baitzen eta sei hilean behin gaurkotzen baita, planean ezarritakoarekin bat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko otsailaren 14an

El Consejero de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior: Javier Remírez Apesteguía

